

28. atala: Taldeka**Irrati-uhinak**

28.1- Erantzun galdera hauei:

1. Zer galdetzen dio behin eta berriz Kevinek Tasiori?
2. Zer entzun dute bi astronautek?
3. Ahotsen jabeak hilda egongo direla jakitean, zer jarri zaio Tasiori? Zer esan nahi du horrek?

28.2- Gure lagunek "iraganeko" irradi-emisio bat entzun dute, duela 50 urtekoa. Gaur egungo emisio hauek (edo zuei bururaten zaizkizuenak) nola uste duzue ikusiko dituztela 30-50 urte barru?



- Horietakoren bat bereziki gogoratuko da? Zein? Zergatik?
- Non ibiliko dira gaur egungo aktore/aurkezle famatuak?
- Zuk zure gaztaroko zein programa gogoratzen duzu? Zergatik?
- Non dago programa baten arrakasta? Zergatik bihurtzen dira batzuk "historiko"?

28.3- Etorkizunean gure zibilizazioaren berri izan dezaten, programa bat utzi behar duzue espazioan galduta. Adostu zein bidaliko zenuketen unibertso ilunean bidaitzera.



28. atala: Taldeka

Transkripzioa (02:25)

- K- Aizu, Tasio, inporta zaizu galdera bat egiten badizut?
 T- Nola jakingo diat inporta zaidan edo ez, zer galdetu behar didakean ez bazekiat.
 K- “Ez” esatearekin nahikoa zen.
 T- Ez? Baina eta inporta ez bazaidak?
 K- Erantzunak “ez” beharko luke.
 T- Ez diat ulertzen.
 K- “Ez” erantzun behar zenuen. Ez zaizula inporta nik zuri galdera bat egitea.
 T- Ezin diat “ez” erantzun zer galdetu behar duan ez bazekiat.
 K- Bada, horregatik galdetu dizut ea inporta zaizun galdera bat egiten badizut.
 T- Bueno, denbora-espazio bukle batean sartu gaitukela uste diat, e?
 K- Zergatik diozu hori?
 T- Irudipena izango duk.
 K- Aizu, Tasio, inporta zaizu galdera bat egiten badizut?
 T- Nola jakingo diat inporta zaidan...
 K- Tasio, Tasio, entzuten al duzu frekuentzia honetan azaldu dena?
 T- E? Igo ezak pixka bat bolumena.
 K- Ezinezkoa da, joan eta etorri egiten da.
 T- Ez diat ezer entzuten.
 K- Espazioan dabilen irrati-uhin bat da.
 T- Eta nola dakik irrati-uhina dela?
 K- Elektromagnetikoa delako eta 10 terahertzio eta 10 kilohertzioaren artean dagoelako.
 T- Tera zer?
 K- Terahertzioak eta kilohertzioak dira. Aspaldidanik espazioan bidaiatzen duten irrati-emisio baten uhinak.
 T- Zer esan nahi duk? iraganeko irrati-emisio bat dela?
 K-. Ekilikua!
 T- Baina, noizkoa?
 K- Ez dago jakiterik, baina uhinaren zabaleragatik, 50 urte gutxienez.
 T- Orduan, ahots horiek honez gero hilda dauden pertsonen ahotsak izan zitezkek?
 K- Ahots horien jabeak, ia ziur, errauts eginak daudela.
 T- Joder, oilo-ipurdia jartzen zaidak!
 K- Tasio, Tasio, uste dut gehiago harrapatzen dela irrati-uhina.
 T- Igo ezak bolumena, Jhonson.
 K- “Ez” erantzun behar zenuen, ez zaizula inporta nik zuri galdera bat egitea.
 T- Ezin diat “ez” erantzun zer galdetu behar duan ez bazekiat.
 K- Bada, horregatik galdetu dizut ea inporta zaizun galdera bat egiten badizut.
 T- Bueno, denbora-espazio bukle batean sartu gaitukela uste diat, e?
 K- Zergatik diozu hori?
 T- Irudipena izango duk.
 K- Aizu, Tasio inporta zaizu galdera bat egiten badizut?
 T- Nola jakingo diat inporta zaidan.

Erantzunak

28.1-

- 1.- Ea axola zaion galdera bat egitea.
- 2.- Espazioan dabilen irrati-uhin bat.
- 3.- Oilo-ipurdia. Esatariak hilda daudela jakiteak hotzikara eman diola (erdarazko *carne de gallinaren* parekoa).